

FATIMAREN BIZIPENAK

Ni Fatima naiz, 12 urteko neska siriarra. Ras Al-Ain hirian bizi naiz, Turkiatik kilometro gutxitara.

Ras Al-Ain eraikin altuz, parkez, banketxez, eta dendaz beteta dago. Gerra baino lehen, zuek inguruan duzuen hiria bezalakoa zen, Bilbo bezalakoa. Baina, munduan, euli kaka bat baino txikiagoa zen. Munduko mapa baten, nanometro karratu bat edukiko zuen bere azalera.

Niretzat Turkia aldera joatea irundar gazteentzako Hendaiara pasatzea bezalakoa da. Bueno, hobeto esanda, zen, orain, gerra hasi denetik, pasaporte eta bisatu berezia behar dira.

Gaur, Gizarteko klasean tratatuei buruz hitz egiten genbiltzanean, irratiko esatariak esan du, urduri:

- Bonbarderoak datoz hirira! Alde egin Ceylanpınar turkiar hirira, hartu behar duzuen eta alde egin Ceylanpınarrera!!
- Entzun duzue, umeok,– oihukatu zien umei Abdul irakasleak. Joan Ceylanpınarrera familiarekin. Arin!

Fatima korrika hasi zen.

Etxeak apurturik zeuden; hegazkin bonbardatzaileen sirenak jo eta jo zeuden; emakume batzuk tristeziagatik oihuka, beren senarrak galdu zituztelako ...

Parke aurretik igarotakoan, umei ohartarazi zien, beraiek ulertzeko moduan:

- Txori handi txar horiek, beren arrautza txarrak botatzen badizkizute, BUM! hil egingo zarete! Etorri, zuen etxera eramango zaituztet.
- Ez, lasai –esan zien ume batek– gure gurasoak hor daude – keinuak egiten zeuden gizon-emakume batzuk seinalatuz. Gizon bat gerturatu zen beraiengana eta hau esan zuen:
- Gu oihuka egon eta zuei bost...? Ba, zigorra merezi duzue. Joan hara derrepentean.

Gizonak burua jiratu zuen Fatimaren aldera.

- Eskerrik asko, Fatima! Orain, joan etxera!
- Ongi da, jauna



Iturria: www.lavoz.com.ar

Fatima Ras Al-Aineko kale odoleztatuetatik joan zen, etxera heldu arte. Urrutian, emakume bat zegoen txilioka:

- Fatima! –oihukatu zuen Ranak, Fatimaren amak erdi negarrez– Fatima! Non zaude?

Fatima amarengana eta ahizparengana, Halarengana joan zen korrika:

- Hemen, ama!
- Non zenbiltzan, maitea? –galdetu zion Ranak.
- Parke Zentralean, meskita aurrean dagoenean. Halaren klasekide batzuk bonba batek ia hil ditu!
- Ai, nire heroia! –esan zuen amak, alaba besarkatu bitartean.
- Fatima –esan zuen Halak, bere ahizpa besarkatu bitartean– ondo zaude!
- Oi, nire Hala!

Besarkatu egin ziren bi ahizpak

- Ongi da, umeak –agindu zuen Ranak– orain kotxera.

Laurak Ford Escort zuri zaharkitu batean zeuden.

Paisaia hareatsua, beroa eta lehorra zen (denok Siria irudikatzen dugun moduan).

100 metrora Turkiako bandera bat zegoen. Bandera gorria zen. Erdian ilargi erdi zuri bat zegoen, eta izar zuri bat zuen ilargiak alboan, jolas lagun gisa, mundu laukizuzen gorrian.

Muga zeharkatu baino lehen, Turkiako polizia batek gelditu zuen kotxea.

- Dokumentazioa, mesedez- esan zuen soldadu batek.

Haren uniformean Şahin jartzen zuen. Şahin ilegorria zen, begi berdeduna, argala, hanka fina, eta bere ezkerreko besoaren goialdean Turkiako bandera zuen. Kamuflejako arropa zuen, berde iluneko, gris iluneko eta marroi iluneko orbanak zituen, saltxitxa txikien modukoak zirenak.

- Hemen dituzu –erantzun zion Ranak.

Portatil bat hartu eta datu-basean alderatu zituen pasaporteak.

Kotxean isiltasuna zen nagusi, Hala lo baitzegoen, baina isiltasun hori ez zen oso atsegina. Isiltasun hori Siria guztiko jendea baino pisutsuagoa zen, Ras Al-Aineko etxe-orratz jausiak baina pisutsuagoa, mundu osoa baino are pisutsuagoa.

Amak ez zuen bere artegatasuna agerian jarri nahi, alabak ez urduritzeko, baina, Fatimak entzun egin zuen amaren bihotza TAUP-TAUP. Minuturo, gero eta azkarrago zihoan.

Bazirudien, amaren bihotza tapiz gorri umel batetik, kaltziozko harribitxiak zituen koba gorritik irtengo zela.

- Nora zoazte? – esan zuen soldaduak pasaporteak begiztatu bitartean.
- Ayvalikera

Besoekin pasatzeko agindua eman zien.

Eta urrunago, esan zuen Ranak kotxekeontzat:

- Errefuxiatuak gara.
- Ama, noiz iritsiko gara? –galdetu zuen Fatimak.
- Biharko, Sofian, Bulgarian.

Fatima aspertuta zegoen. Ezer ez zuen egiteko, eta orduan, amak erositako liburua zabaldu zuen: *“Asmirrek ez du pistolarik nahi”*. Dela 20 urte inguru gertatu zen istorioa. Asmir, protagonista, Sarajevokoa zen, Bosnia-Hertzegovinakoa, eta azkenean, Vienan, Austrian, geratu zen bizitzen, gerratik ihesi zebilelako. Fatima identifikatuta sentitu zen. Erabakita zuen, aurrerantzean bere liburu kuttunena hau izango zen.

Fatima lokartu egin zen.

Amak esnatu egin zuen Fatima.

- Egun on!!
- Egun on –nagiak atera bitartean Fatima esnatu berriak – Non gaude?
- Sofian –erantzun zion amak.
- Kaixo –esan zion azentu eslaviarduna zuen gizon batek–, ni Alexander naiz. Zure amarekin joan nintzen unibertsitatera.
- Kaixo Alexander, ni Fatima naiz, hamabi urte ditut eta nire ahizpa Hala da. Berak lau urte ditu –esan zuen bere ingelera kaxkarrean.
- Fatima, Rana, Hala; orain nire pisura eramango zaituztet.

Sofiak Ras Al-Ain gogorarazi zion Fatimari. Etxe-orratz gris altuak zeuden, Versailleseko lorategiak ziruditen parkeak, txurro saltzaileak, gaztaina saltzaileak ... Laurak kale artetik *zig-zag* moduan ibili ziren.

Gero, kotxea gelditu zuen Alexanderrek.

- Hau nire etxea da. *Aleksandar I* kalea, 20.
- Oh, ez! – esan zuen Ranak, *Aleksandar I* kaleko kiosko batean, ingelera idatzitako egunkari bateko titularra irakurrita– Serbiak gauerdian itxiko du muga, orduan ezingo gara Bulgarian geratu ...
- Hori da, oso arriskutsua da, Rana. Bulgaria errefuxiatuz beteko da , eta, gainera, baliteke zuek Turkiara eramatea. Diotenez, Turkia oso arriskutsua da.
- Hori da, Alex. Nik ahal nuen arinen gidatu nuen, herrialde honetatik ahalik eta azkarren irteteko.
- Rana, egidazu mesede bat. Innsbruckera iristean, bidali mezu bat edo dei nazazu, mesedez.
- Ongi da, Alexander.
- Agur Alexander! –Fatimak.
- Agur!

Fatimak lehengo etxe-orratz eta parkeak ikusi zituen, baita lehengo saltzaileak, saltoki ibiltariak ixten. Fatimari barregura ematen zion, txikitan, saltokiek hankak

zituztela imajinatzen zuelako, baina, oso nekatuta zegoen barre egiteko. Horregatik, berehala lokartu zen.

- Kalotinan gaude –esan zuen amak esnatzerakoan.
- Ama, gose naiz – esan zuen Fatimak sagarrak seinalatu bitartean.
- Itxaron. Zuek hemen egon, ni orain nator, gasolioa bota behar diot kotxeari.

Ahizpa biak, harri, orri eta ar jolasera jolastu ziren.

Ama, gasolioa bota eta gero, etxola batean sartu zen. Etxolan, neonezko argiekin hau ipintzen zuen:

**Добре дошли в
бензиностанцията Борис!!
Най-добрата цена в Европа!**

(Hau da: Ongi etorri Borisen gasolindegira! Europako preziorik onenak hemen!)

Amak, Borisi tiket bat eman zion. Tiketean jartzen zuen zenbat litro bota zizkion kotxeari.

- Ongi da. 161,972 lev, mesedez.
- Euroa onartzen duzue?
- Bai, andrea.
- Zenbat balio du, eurotan?

Gizonak kalkulatu egin zuen:

- 82,88 euro dira.
- Hemen dituzu.
- Agur, andrea! Eskerrik asko.
- Agur!

Kotxean, ama bueltatzean:

- Ondo portatu da Hala, Fatima?
- Bai, ederto portatu da.
- Horregatik, opari bat dut zuentzat.

- Hala, ikusi!! Tablet bat!!
- Tabe, tabe!!! – Halak
- Orain, Serbiara joan behar dugu, Belgradera joateko.

Serbiar polizia batek gelditu egin zituen. Vucic agentea zen. Honek ez zuen kamufloje jantzirik, baina, * “Полиција/Policija” zihoen letra fosforitoetan, traje ilunaren bizkarrean.

- Pasaporteak, mesedez.
- Hemen dituzu, jauna.
- Nora zoazte?
- Belgradera.
- Ongi da, pasatu.



Iturria: motoroads.com

Ordu eta erdian, Rana bi alabekin Nikola Tesla Aireportura heldu zen. Azkar fakturatu eta Innsbruckera zihon hegazkina hartu zuten.

Iturria: cabincrewelite.wordpress.com

- ***Willkommen auf der Ebene von Niki gebunden für Innsbruck*

Zein ederrak ziren landak, hiriak, herrixkak Film bat jarri zuten hegazkinean: *Kung Fu Panda 3*. Eta ... bat-batean:

- ****Wir landen in Innsbruck. Wir hoffen, Sie haben die Reise genossen, Ebenes Niki*

Fatima, Rana eta Hala lurra hartu eta gero, aireportuko atera irten ziren. Han zegoen gizon bat oso ezaguna egin zitzaien hirurei:

- Aita! – garrasi egin zuten bi ahizpek oihuka. Korrika batean besarkatu egin zuten aita.
- Mohamed! -oihukatu zuen Ranak ia negarrez. Rana korrika joan zen, bere senarra besarkatzera.

*Polizia

**Ongi etorri Niki Konpainiaren Innsbruckerako hegazkinera

***Innsbrucken gaude lurreratzen. Espero dugu bidaiaz gozatu izana, Nikiren partez.



Fatimaren bidaia: Ra; Al-Ainetik Innsbruckera (3.633km)

